

LORE ESKEINTZA KEINUA

OTOITZEAN

LORE GORRIA

Batek: Lore gorria, polita baina
gauza gitxi naz bakarrik,
ez ete dago besterik inor
daukanik nire beharrik.

Danak: Ene Jainkoa, ez dakigula
faltatu zure indarrik,
gure artean biztu ez dedin
bakez kontrakougarrik.

LORE BERDEA

Batek: Ni berdea naz, zoragarria,
nor ete nire antzeko?
Baina uste dot beste batzukaz
nengoke askoz hobeto.

Danak: Jauna, lagundu sendo sinisten
garala herri bateko
alkar onartuz, alkar lagunduz
alkarrentzat beharrezko.

LORE ZURIA

Batek: Lore zuria, ikusgarria
kolorez eta usainez?
Hau zoritxarra, nazan bestean
bakarrik iraun ezinez.

Danak: Egizu, Jauna, bizi nadila
besteekaz bat eginez:
bete daigula gure Herria
bakez eta atseginez.

LORE TXORTA ESKEINTZA

Batek: Txorta bakarra lorez beterik
gorri, berde eta zuri,
edertasunez ta batasunez
Euskal Herria dirudi.

Danak: Oi Ziortzako Ama, lagundu,
otoizka gagoz gaur Zuri:
Jaunak daijala bake gozoa
gure gainera isuri.